

-FUNTSEZKO ELKARTEAK

Negozioaren garapenerako eta eguneroko jarduerarako funtsezkoa da hainbat elkarte estrategikorekin lankidetzan aritzea. Lehenik eta behin, hardware-hornitzaileak ditugu, gela klimatizatu adimendua osatzen duten sentsoreak, termostatoak, kontrolagailuak eta bestelako gailu elektronikoak eskaintzen dituzten enpresak. Horiez gain, software eta IoT plataformen hornitzaileekin elkarlanean jarduten dugu sistemaren kontrola, datuen kudeaketa eta segurtasuna bermatzeko.

Bestalde, instalazio- eta mantentze-enpresek paper oso garrantzitsua dute, bezeroen etxe edo lokaletan sistema behar bezala ezartzeko eta denboran zehar mantentzeko. Era berean, eraikuntza- eta berrikuntza-enpresekin harremanak izatea ezinbestekoa da proiektu berrietan edo eraikinen modernizazioan gure soluzioa integratzeko. Azkenik, energia-eraginkortasunean espezializatutako enpresekin eta aholkulariekin lankidetzan aritzen gara, gure produktuak jasagarritasun-helburuekin bat egin dezan eta bezeroei balio erantsia eskaini ahal izateko.